

Macronen Errepublika Martxan garaile

HEDABIDE EK IRAGARRIA GAUZATU DA

Asanblea Nazionaleko 577 eserlekuak beren diputatua daukate bost urteko legealdirako. Alta bada, bozemaileen %58k ez du botorik eman. Frantziak, Europako demokraziaren sehaskak, behea jo du. Edonola ere, Macron uholdea sentitu da Ipar Euskal Herrian ere. Frantziako Legebiltzarrean egonen diren hiru diputatuetak bi presidentearen Errepublika Martxan mugimendukoak dira: Vincent Bru eta Florence Lasserre-David. Bestea Jean Lassalle da.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

Emmanuel Macron presidentearen Errepublika Martxanek (EM) 350 diputatu lortu ditu. Espero zuena baino aise gutxiago, lehen itzulian 400 inguru lortuko zutelakoan zeuden. 350 diputatu horien barnean François Bayrouren MoDemeko 44 daude. Justizia ministroaren alderdia indartuta ateratzen da EMrekiko kanpainan mantendu duen lehia. Konstatazio bat hala ere: Bayrouren jarduera politikoari irregulartasunak antzeman zaizkio azken astean, *Le Canard Enchaîné* aldizkariak salatuta. Abstentzioak abstentzio, ustelkeria ez da zigortua izan azken bi hauteskundeetan. Egungo sistema politikoak, aldez edo moldez, politikaria babesten du; honen jarduera ustela edo sana izanda ere.

Les Republicains (LR) alderdiak eta UDIk, (Demokrata eta Independenten Batasuna) biek elkarrekin, 130 diputatu lortu dituzte. Eskuinaren porrota agerikoa da, baina bere egoera ez da egungo *establishment*-en aldeko hedabideek iragarri bezain apokaliptikoa ere. François Baroin eta Laurent Wauquiez dira alderdiaren buru berriak. Alderdiaren presidente kargua

euren artean jokatu da datozen hila-beetetan. Eskuinak antolatze eta berritzeko arazoak ditu, baina funtsean, galdutako eserlekuak EMk eskuratu ditu. Zein da EMren alternantzia? LR, hots, eskuina. Funtsean, artean, eskui-na izaki boterean, Gobernuaren Matignon egoitzan eta presidentearen Eliseoan.

PSk 32 diputatu lortu ditu. PRG (Ezkerreko alderdi Erradikala) eta Ekologistek 13. Ezkerrak baino, esan dezagun sozialdemokraziak muturreko galanta hartu duela, berea da porrot handiena. PSren hondamendia erabatekoa da. PSko Jean-Christophe Cambadélis idazkari nagusiak bozen emaitzak ezagutu ondoren bere kargua utzi du. Galdera jalgitzen da: EMn dauden sozialdemokraten eraginaren ote dute Macronen politika neoliberallean, beraiek neoliberalismo kapitalistaren aliatu zintzoenak direlarik?

Frantzia Intsumisoak eta PCFk 27 diputatu eskuratu ditu. Ezkerrak Frantzia daukan sostengu soziala kontuan harturik, porrota ere begi-bistakoa da. Frantzia Intsumisoaren Jean-Luc Mélenchonek, bere agerraldietan jarraera

eta mezu oso erradikalak agertu ohi dituen arren, egin nahi duen oposizioa gauzatzeko, abstentitu diren ezkerreko bozkatzaileekin sintonizatu beharko du. Jean-Luc Mélenchon diputatu berria da Asanblea Nazionalean.

Marine Le Penen FNk 8 diputatu lortu ditu. Azpimarratzeko bi datu: Marine Le Pen lehen aldiz eseriko da Legebiltzarrean. FNko Florian Philippotek, alderdiaren bigarrenak, ez du eserlekurik erdietsi. Bi liderren arteko nolabaiteko lehia izan da azken hilabetetan. Philippoten porrotak FN barruko indar harremanak aldarazi ditzake. FNk ez du talde parlamentariarik izanen, hori lortzeko 15 diputatu erdietsi behar baita, alta bada, FNk inoiz baino "harrabots gehiago" egingen du Asanblea Nazionalean. Bestalde, demagun bosturtekoaren ondorenean, Marine Le Pen presidentea aukeratua dela presidentea, ez da guztiz ezezkoa, LR eta EMko zenbat diputatu joanen litzateke FNra?

Gainerako alderdiek edo talde politikoek 29 diputatu lortu dituzte. Bitxia da datu hau, boz zenbaketa gauek biharamunera, kopurua 9 izatetik 29 izatera pasa zen. Datuak hutsala zirur-



Errepublika Martxanek 350 diputatu lortu ditu. Espero zuena baino aise gutxiago, lehen itzulian 400 inguru lortuko zutelakoan zeuden.

dien une batez, baina finean haxe erakutsi du: Frantziako ordezkartza politikoa gero eta zatituagoa eta atomizatuta dago. Ez da demokraziaren aniztasunaren seinalea, aitzitik, alderdi politikoen gainbeheraren erakuslea da, aro ideologiko baten amaieraren erakusle.

Paradoxak eta bitxikeriak: hauteskunde gauean, bozen kontaketa orduan, ardura nagusia zen, ea Marielle de Sarnez, Mounir Mahjoubi, Bruno Le Maire, Richard Ferrand, Christophe Castaner eta Annick Girardin ministroak hautatuak izango ziren edo ez. Bestela, Edouard Philippe lehen ministroak igarri bezala, ministro kargua utzi beharko zuketzen eta. Annick Girardin itsas harantzako ministroa “arriskuan” zegoen, baina azkenik seiek lortu dute Legebiltzarreko eserlekua. Manuel Valls lehen ministro ohia diputatu hautatu dute. Frantzia Intsumisioak ez du onartu haren aldeko bozen kontaketa. Evry herriko Udaletxean gaua luze eta beroa izan da. Horiek horrela, iraganeko ministro edota diputatu inguruen hautatzearen zalantzak bete du hauteskunde gaua hedabideetan eta alderdien egoitzetan. Horratx, egungo

» **Asamblea Nazionaleko diputatuen gehiengoa kontuan harturik, inork pentsa dezake eskuina galtzailea denik?**

» **Alderdi Sozialistaren porrota gertatu da Ipar Euskal Herrian ere: Sylviane Alaux lehen itzulian berean gelditu zen lehiatik kanpo eta Colette Capdevielle aldiz bigarreanean**

politikakeriaren eta politikarien demokraziaren erretratuak.

Gauan barrena hainbat eserleku izan ziren “dantzan”, hainbat diputaturen edo “politikari notable”-ren eserleku “fin-koak” erabaki artean. Izan ere, politika jarduerak “profesional hutsa” bilakatu da. Emmanuel Macron presidentea da espone agerikoena. V. Errepublikan, Frantziako diputatuen ezaugarria haxe izan da: herri, departamendu eta erregioko erakundeetako hautetsi bilakatu ahala, diputatu edota senatari hautatuak ziren. Macron bankari lanetan aritu ondoren, PSko François Hollanderen gobernuan ekonomia ministro izan ondoren, Errepublikaren presidente bilakatu da.

Azkenik, Frantziako politikagintzak bere protokoloa segitzen du. Edouard Philippe lehen ministroaren lehenbiziko zeregina gobernu berria bertan behera uztea da, bere ministroak dimisioaraztea. 24 ordutan, “kabinete berria” aurkeztuko dio Macron presidenteari. Politikaren formulismoa. Anartean, haxe galdetu dezakegu: diputatuen gehiengoa kontuan harturik, inork pentsa dezake eskuina galtzailea denik?